

Lanbide Heziketako ikasleak finalistak dira Siemens-ek antolatu duen lehiaketan

2016/06/13

Mondragon Goi Eskola Politeknikoko diziplina anitzeko ikasle-talde bat lau finalisten artean sailkatu da Siemens-ek estatu mailan zortzigarrenez antolatu duen Industry Automation prototipoen lehiaketan. Goi mailako Heziketa Zikloko bi ikaslek eta ingeniari-tza-gradu-ko batek osatutako taldeak automatizatutako berotegiaren proiektua aurkeztu du. Lehiaketaren lehen fasean, aurkeztutako 10 proiektu onenen artean sartu zuen epaimahaiak ikasle-oren egitasmoa, eta bigarren fasean, berriz, lau onenetako bat dela erabaki du.

Industria-automatizazioa ikasketan sartuta duten Espainiako Lanbide Heziketako institutuei eta unibertsitatei bideratuta dago lehiaketa. Epaimahaiaren erabakiz irabazlea nor izango den datorren ekainaren 20an emango dute jakitera Madrilan.

Sergio Murga eta Iker Senar, Goi Mailako Heziketa Zikloko Sistema Elektrotekniko eta Automatizatuetako 2. mailako ikasleak, eta Julen Paniagua, 3. mailako Industria Elektronikako Ingeniaritzako gradu-ko ikaslea, hiru hilabetez landu dute proiektua. Landare mota jakin bat hazteko klima-baldintza egokiei eutsiko dien berotegi automatizatuaren kontrola da egitasmoaren funtsa. Ukipen-pantaila baten bitartez honako hauek egin ditzake erabiltzaileak: landare mota aukeratu, funtzionamendu automatikoa eten, eragingailuren baten inguruan zuzenean esku-hartzeko, eta berotegiaren alarma-egoerei edo prebentziozko mantentze-ari buruzko ohartarazpenak jaso, besteak beste.

Ekainaren 20an, ikasleak Madrilan egon ziren behin betiko emaitza jakiteko, hirugarrenak izan dira. Harro egoteko modukoa da, kontutan hartuta lehiaketan egon den nibela.



Zorionak hirukote!

